

Kultura-agenda irratsaioa 2.mp3

Antzerkiari dagokionez, abuztuaren hogeita hamarrean Txalo produkzioak "Galtzaile" antzezlana taularatuko du Angelun, gaueko bederatzietan. Zirkoa eta trapezioa gustuko badituzue, berriz, irailaren batean, arratsaldeko seietan, trapezio erakustaldia izango duzue Portugaleten, Azuklillas taldearen eskutik. Irailaren hiruan, Pez Limbo antzerki taldeak "harri, orri, ar" antzezlana eskainiko du Santurtzin, zortzi eta erdietan, eta, Atarrabian, irailaren lauan, Hika teatroaren "Sagartu" antzezlana ikusi ahal izango dugu arratsaldeko zazpian.